



**ELKARLANERAKO HITZARMENA SAHATS
FUNDAZIOAREKIN, BARAÑAINGO
UDALAREN 2025eko AURREKONTUAN
AURREIKUSITAKO DIRULAGUNTZA
NOMINATIBOA BIDERATZEKO, BAI
EUSKARARI 2025 EGITASMOA
KUDEATZEKO XEDEAREKIN.**

Barañainen, 2025eko abuztuaren 11n.

BILDURIK

Alde batetik, María Lecumberri Bonilla andrea, Barañaingo Udaleko alkatea, Toki-araubidearen legeriak emandako eskumenak erabiltzaile; zehazki, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikulua.

Beste alde batetik, Jose Ramon Olano Etxabe jauna, NAN 72.434.667 P zenbakia duena, Sahats Fundazioaren zuzendaria, zeina Barañainen (Nafarroa) helbideratua dagoen, Haraneko kalea, 2, behe (telefonoa: 948 188325), eta IFZ G31 941008 zenbakiduna.

AZALTZEN DUTE

Barañaingo Udaleri emandako eskuduntzen artean, 18/1986 Foru Legeak, euskara Nafarroan arautzen duenak, 1. artikuluan xedatzen dituen helburuak lortzen laguntzea da bat.

Izan ere, aipatu artikulua Foru Legearen xede nagusiak zeintzuk diren ezartzen du:

- "Hiritarrek euskara ezagutu eta erabiltzeko duten eskubidea babestu eta eginkor bihurtzeko tresnak zehaztea.*
- Euskararen berreskurapen eta garapena begiratzea, bere erabilpena sustatzeko neurriak adieraziz.*
- Euskararen erabilpena eta irakaskuntza bermatzea, borondatezotasun, mailakatze eta begirune irizpideei jarriki, guzti hau Nafarroako errealitate soziolinguistikoaren arabera".*

**CONVENIO DE COLABORACIÓN
CON SAHATS FUNDAZIOA POR EL QUE SE
CANALIZA LA SUBVENCIÓN NOMINATIVA
PREVISTA EN LOS PRESUPUESTOS DE 2025
DEL AYUNTAMIENTO DE BARAÑÁIN CON
DESTINO A LA GESTIÓN DEL PROYECTO BAI
EUSKARARI 2025**

En Barañáin, 11 de agosto de 2025.

REUNIDOS

De una parte, Doña María Lecumberri Bonilla, alcaldesa de Ayuntamiento de Barañáin, en uso de las competencias atribuidas por la legislación de Régimen Local, en concreto, el artículo 21 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local.

De otra parte, D. José Ramón Olano Etxabe, con D.N.I. 72.434.667 P, como director de Sahats Fundazioa, domiciliada en Barañáin, Navarra, en la Avda. del Valle núm. 2, bajo, y provista de C.I.F: G 31941008 y teléfono 948 188325, en nombre y representación de dicha entidad.

EXPONEN

Dentro de las competencias atribuidas al Ayuntamiento de Barañáin se encuentra la de contribuir a los objetivos recogidos en el artículo 1 de la Ley Foral 18/1986, reguladora del Euskera en Navarra.

Así, este precepto establece cuáles son los objetivos esenciales de la Ley Foral:

- "Amparar el derecho de los ciudadanos a conocer y usar el vascuence y definir los instrumentos para hacerlo efectivo.*
- Proteger la recuperación y el desarrollo del vascuence en Navarra, señalando las medidas para el fomento de su uso.*
- Garantizar el uso y la enseñanza del vascuence con arreglo a los principios de voluntariedad, gradualidad y respeto, de acuerdo con la realidad sociolingüística de Navarra."*



Beste alde batetik, aipatu arauaren zioen adierazpenak ondokoa dio: *"Nafarroa bezala beren ondarean hizkuntza bat baino gehiago edukitzeaz ondrazten diren Komunitateak, altxor hori begiratu eta babestera behartuak dira, baita hura hondatu eta galtzea eragoztera ere. Baina ondare horren zaintzea ezin daiteke egin, ezta behar ere, hizkuntzen arteko borroka eta gatazkaren bidez; aitzitik eta Konstituzioaren 3.3. artikulua ezartzen duenari jarraiki, errespetu eta babes berezia behar duten ondarea direla aitortuz."*

Estatu mailako arautegian, Toki Erregimeneko Oinarrien Legearen 25. artikulua ezartzen du udalerriek, euren interesak kudeatzeko eta euren eskuduntzen muga gainditu gabe, biztanleen premia eta nahiak asetzen laguntzea helburu duten jardura mota guztiak sustatu zein nahi adina zerbitzu publiko eman ahalko dituzte.

Aipatu artikuluen bigarren zatian lotutako eskuduntzen artean, kultura ondasunarekin zerikusia duten ekintzak onesten dira.

Amaitzeko, Barañaingo udalerrian euskararen erabilpena eta sustapena arautzen dituen ordenantzen VI. kapituluaren ("Euskararen sustapena" izena du) 24. artikulua aurkituko dugu, ondokoa dioena, hitzez hitz: *"Kultura jarduerak eta euskera sustatzekoak bultzatuko dira eta gizarte ekimenez bultzatutakoak diruz lagunduko dira."*

Horretarako, Barañaingo Udala 2025erako aurrekontuetan "Bai Euskarari Proiektua" izeneko partida dauka (33 33505 48900). Aurrekontua gauzatzeko oinarrietan, 29 oinarriaren Batzenbaidun eranskinean 2.1 puntuan, jasota dago Sahats Fundazioari Bai Euskarari proiektua garatzeko dirulaguntza izenduna ematea.

Ildo horretatik, "Euskararen Gizarte Erakundearen KONTSEILUA" elkarteak hainbat ekimen sustatu ditu aurreko atalean bildutako helburuei buruz.

Por otro lado, la exposición de motivos de esta norma establece que *"aquellas Comunidades que, como Navarra, se honran en disponer en su patrimonio de más de una lengua, están obligadas a preservar ese tesoro y evitar su deterioro o su pérdida. Más la protección de tal patrimonio no puede ni debe ejercerse desde la confrontación u oposición de las lenguas sino, como establece el artículo 3.3 de la Constitución, reconociendo en ellas un patrimonio cultural que debe ser objeto de especial respeto y protección."*

En la normativa estatal, el artículo 25 de la Ley de Bases de Régimen Local establece que los municipios, para la gestión de sus intereses y en el ámbito de sus competencias, pueden promover toda clase de actividades y prestar cuantos servicios públicos contribuyan a satisfacer las necesidades y aspiraciones de la comunidad vecinal.

Entre las competencias relacionadas en el número dos de este artículo recién citado se reconoce la referida a las acciones concernientes al patrimonio cultural.

Por último, en el capítulo VI de la actual ordenanza reguladora del uso y fomento del euskera en el ámbito municipal de Barañáin, referido al "Fomento del Euskera" nos encontramos con los dictados del artículo 24 que textualmente dice: *"Se promoverá la organización de actividades culturales y de promoción del euskera y se ayudará económicamente a las promovidas por la iniciativa social."*

Para ello el Ayuntamiento de Barañáin dispone de una partida en los presupuestos para 2025 denominada "Proyecto Bai Euskarari" (33 33505 48900). En las bases de ejecución del presupuesto, en el Anexo número uno a la base 29 punto 2.1, está contemplada la subvención nominativa a Sahats Fundazioa para el desarrollo del proyecto Bai Euskarari.

En este sentido, la asociación "Euskararen Gizarte Erakundearen KONTSEILUA" o "Consejo de los organismos sociales del euskera" viene promoviendo diversas iniciativas en torno a los objetivos constatados en el punto anterior.



Hortaz, "Bai Euskarari hitzarmena udalerrietan" izeneko ekimena aurkeztu zuen Barañaingo Udalean. Ekimenak, laburbilduz, Plan Estrategiko bat prestatu du, gizarte eragileen ardurapean eta Toki Erakundearekin batera, euskararen sustapen zein berreskurapenerako.

Proiektuak, elkartearen lana udalerri bakoitzean eraginkorragoa izatearren, euskararen inguruko gizarte erakundeek elkarrekin bat eratzeko aurreikusten du. Horren bidez, lan egiteko modua arautuko da eta nahikoa gaitasun izango dute aritzeko eta Udalarekin behartzeko. Barañaini dagokionez, ekimena SAHATS FUNDAZIOAREN esku uztea erabaki da. Bera izango da, beraz, gure udalerrian euskara berreskuratzearen aldeko lan eta konpromisoa aurrera aterako duena, eta, horregatik, bera da agiri hau sinatzen duena.

2024an sinatu zen elkarlan hitzarmenean, Udalak proiektu honi 2025. urtean segida emateko borondatea adierazi zuen, eta horretarako hitzarmen berri bat sinatu beharra dago.

Bi alderdiek jakin badakite euskara sustatu eta babesteko proiektuak garatzea oso garrantzitsua dela, Nafarroako Toki Administrazioaren Foru Legearen 221. artikuluan eta ondokoetan ezarritako aplikazio arau-eremuaren arabera, Toki Administrazioaren eta bat datozen gainontzekoen sustapen jarduketari dagokionez.

Aurreko guztiarekin bat, Elkarlanerako Hitzarmen hau sinatzen dugu segidako baldintza adostuekin

ESTIPULAZIOAK

LEHENDABIZIKOA.- Xedea.

Barañaingo Udalak Sahats Fundazioari 16.000 €-ko dirulaguntza ematea da Hitzarmen honen xedea, Bai Euskarari proiektua kudeatzeko Barañainen **1. Eranskina** agirian jasotakoarekin bat.

Así, presentó en su día, en el Ayuntamiento de Barañáin, una iniciativa denominada "El acuerdo Bai Euskarari en los Municipios" que ha consistido fundamentalmente en la elaboración de un Plan Estratégico a cargo de los agentes sociales y en colaboración con la Entidad Local para el fomento y recuperación de la lengua.

El proyecto prevé que para el trabajo de la asociación en cada municipio, los organismos sociales del euskera se constituyan en una asociación que regule su forma de funcionamiento y pueda tener la capacidad suficiente para poder actuar y obligarse con el Ayuntamiento. De esta manera, en el ámbito municipal de Barañáin se ha designado a la SAHATS FUNDAZIOA como la depositaria de esta iniciativa de compromiso y trabajo en pos de la recuperación del Euskera en nuestro ámbito municipal y, por ello, es la firmante de este documento.

En el convenio que se suscribió para percibir la subvención concedida al amparo de los presupuestos del año 2024 se recogió la voluntad manifiesta del Ayuntamiento de Barañáin de continuar el proyecto durante el año 2025, para lo cual sería necesaria la firma de un nuevo acuerdo de colaboración.

Que ambas partes son conscientes de la importancia que tiene el desarrollo de proyectos en el ámbito de la promoción y cuidado del Euskera, de acuerdo con el marco normativo de aplicación recogido en los artículos 221 y siguientes de la Ley Foral de Administración Local de Navarra, referida a la actividad de fomento por parte de la Administración Local.

En virtud de lo expuesto, suscriben el presente Convenio de Colaboración de acuerdo con las siguientes

ESTIPULACIONES

PRIMERA. - Objeto.

Es objeto del presente Convenio, la concesión de una subvención de 16.000 € por parte del Ayuntamiento de Barañáin a Sahats Fundazioa con el fin de que sea destinado a la gestión del proyecto Bai Euskarari en el municipio de Barañáin, según **Anexo 1**.



BIGARRENA.- Barañáingo Udalaren betebeharrak.

Aurrekoarekin bat, Barañáingo Udalak 16.000 €-ko dirulaguntza emango dio Sahats Fundazioari, 33 33505 48900 ("Proyecto Bai Euskarari") kontusailaren gain, eta 2025erako ordainduko dio Sahats Fundazioari.

Emandako dirulaguntza, honela ordainduko da:

- Hitzarmena sinatzearekin batera, eta 2024ko dirulaguntza zertan gastatu den frogatzean, diru laguntzaren % 75 emango da.
- Hitzarmena sinatutakoan ordaindu den %75 zertan gastatu den frogatzean ordainduko da diru laguntzaren % 15.
- Gainerako % 10a hitzarmenean hitzartutako **2. Eranskina** inprimakian jasotako ekintzak burututakoan ordainduko da.

HIRUGARRENA.- Sahats Fundazioaren betebeharrak.

Sahats Fundazioak bere gain hartzen du emandako dirulaguntza Bai Euskarari proiekturako erabiltzeko betebeharra, eta dirulaguntza hori hitzarmen honen barruan onartutako xedeetarako erabili dela justifikatzera, Barañáingo Udalaren Erregistro elektronikoen bidez (eskuragai www.barañain.eus helbideko egoitza elektronikoa) dagokion dokumentazioa aurkeztuta.

Justifikazio-kontuak honako agiri hauek osatuko dute:

- a) Dirulaguntzaren emakidan ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzen duen jarduketa-memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak zehaztuta.
- b) Jardueraren gastu eta inbertsioen zerrenda, sailka, zorduna eta dokumentua zehaztuta, zenbatekoa, igorpen-data eta ordainketa-data barne. Zerrenda horrek dagozkion

SEGUNDA. - Obligaciones del Ayuntamiento de Barañáin.

En virtud de ello el Ayuntamiento de Barañáin concede a Sahats Fundazioa una subvención de 16.000 € con cargo a la partida 33 33505 48900 ("Proyecto Bai Euskarari") que serán entregadas a Sahats Fundazioa para el año 2025.

El abono de la subvención otorgada, se hará efectiva de la siguiente manera:

- Se abonará el 75% del importe total de la subvención que se concede a la firma del Convenio y en el momento en que quede plenamente justificado el destino de la subvención correspondiente al año 2024.
- Se abonará el 15% del importe total de la subvención con la justificación suficiente de los gastos correspondientes al 75% ya entregado a la firma del convenio.
- El 10% restante se abonará a la finalización de las actividades recogidas en el Anexo 2.

TERCERA.- Obligaciones de Sahats Fundazioa.

Sahats Fundazioa se obliga a destinar la subvención concedida al proyecto Bai Euskarari, y a justificar la aplicación de la subvención para la finalidad para la que ha sido concedida, mediante presentación en el Registro electrónico del Ayuntamiento de Barañáin (disponible a través de la Sede electrónica en la dirección www.baranain.es) de la correspondiente documentación.

La cuenta justificativa contendrá la siguiente documentación:

- a) Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos.
- b) Una relación clasificada de los gastos e inversiones de la actividad, con identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión y fecha de pago. Esta relación deberá



fakturak eta ordainketa-frogagiriak izan beharko ditu lagungarri.

c) Hala balegokio, diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen xehetasuna, zenbatekoa eta jatorria zehaztuta. Zer jarduera jakin diruz lagundu ziren zehaztuko da, argi eta garbi. Beste dirulaguntzarik jaso duten jarduerak ezin izango dute udalaren dirulaguntza eskatu, salbu eta beren defizita ez bada erabat estali jasotako dirulaguntzarekin.

d) Hala balegokio, itzulketaren ordainketa-gutuna, baldin eta aplikatu gabeko gerakinak badaude, baita haiei dagozkien interesena ere.

Aurreko b) eta c) atalak **3. Eranskina** berariazko inprimakian aurkeztu behar dira.

Jarduerarekin dirua irabazten bada, lortutako irabaziaren arabera itzuli beharko da Udalaren dirulaguntza.

Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueren publizitatea egin beharko du eta jarduera horien publizitate-euskarrietan Barañaingo Udalaren eta Euskara Sailaren logotipoak jaso beharko ditu. Logotipo horiek Udalaren Euskara Zerbitzuan solitatuko dira, "Laguntzailea/Colabora" testuarekin. Eta testuak elebitan argitaratuko dira (euskaraz eta gaztelaniaz). "

Baita jardueraren garapenean gertatzen den edozein gorabeheraren berri ematea ere, gertatzen den nean.

Dirulaguntza zertan erabili den justifikatzeko epea 2026ko otsailaren 13an amaituko da. Salbuespen gisa, eta betiere otsailaren 13a baino lehen, dirulaguntza justifikatzeko emandako epea 2026ko martxoaren 31ra arte luzatzeko eskatu ahal izango du erakunde onuradunak. Luzapena berariaz onartu beharko du udal-organo eskudunak, eta justifikatutako arrazoiengatik aurreikusitako epeetan gauzatu ezin izan diren proiektuei buruzkoa izango da, bai eta hala eskatzen duten beste proiektu batzuei buruzkoa ere.

estar respaldada por sus correspondientes facturas y justificantes de pago.

c) Un detalle de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación del importe y su procedencia. Se especificará claramente qué actividades concretas recibieron subvención. Las actividades que hayan recibido otras subvenciones no podrán optar a la subvención municipal, a no ser que el déficit de las mismas no se haya cubierto en su totalidad por la subvención recibida.

d) En su caso, carta de pago de reintegro en el supuesto de remanentes no aplicados así como de los intereses derivados de los mismos.

Los apartados b) y c) se presentarán en el impreso específico **Anexo 3**.

Si la acción se convierte en lucrativa, la subvención municipal concedida será devuelta en relación al beneficio obtenido.

La entidad beneficiaria queda obligada a hacer publicidad de las actividades subvencionadas y a hacer constar en los soportes publicitarios de dichas actividades los logotipos del Ayuntamiento de Barañáin y el Área de euskera, que se solicitarán en el Servicio municipal de euskera, con el texto "Laguntzailea/Colabora". Y, los textos se editarán en bilingüe (euskera y castellano)."

Así como a comunicar cualquier eventualidad en el desarrollo de la actividad, en el momento que aquella se produzca.

El plazo de justificación de la subvención finalizará el 13 de febrero de 2026. Excepcionalmente, y siempre antes del 13 de febrero, la entidad beneficiaria podrá solicitar una prórroga del plazo concedido para la justificación de la subvención, hasta el 31 de marzo de 2026. La prórroga deberá de ser aprobada expresamente por el órgano municipal competente y vendrá referida a aquellos proyectos que no se hayan podido ejecutar en los plazos previstos por causas justificadas, así como aquellos otros cuya duración así lo requieran.

LAUGARRENA.- Diruz lagun daitezkeen gastuak.

CUARTA.- Gastos subvencionables.



Diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko dira diruz lagundutako jardueraren izaerari erantzuten diotenak. Hona hemen gastu horiek:

- 1. Giza baliabideak:** proiektuko lan teknikoak egiten dituen pertsona Euskaltegiko irakaslea da, eta lanaldiaren % 28 Bai Euskarari programako zereginetan ematen du.
- Aholkularitza-lanengatik gastuak.

- 2. Komunikazio-gastuak:** telefona eta bulegoko materiala barne.

- 3. Proiektua osatzen duten erakundeentzako laguntzak:**

3.1. Bai Euskarari ziurtagiriak: ziurtagiria duten eragileek ziurtagiriaren oinarriaren kostuari dagokion zenbatekoaren % 50 jasotzen dute.

3.2. Barañaingo biztanleei zuzendutako zereginak dituen erakundeko kideren batek euskara ikastea: ordaindutako matrikularen % 50.

- 4. Testuen itzulpenak:**

Gizarte eragileek testuen itzulpenak eskatu ahal izango dituzte, gaztelaniatik euskarara, eta doan jasoko dituzte.

Itzulpen horien gastua honako tarifazio honekin zenbatzen da:

- Oinarrizko tarifa: 0,0128 euro/izaera (espazioa barne).
- Gutxieneko tarifa: 23,04 euro (Gutxieneko itzulpena orrialde baten baliokidea izango da, nahiz eta hau txikiagoa izan). Orrialde batean batez beste 1.800 karaktere kalkulatzen dira).
- Oinarrizko tarifaren igoera, testuaren zailtasunaren arabera

Berezia	
Testuak berrikustea, ontzat emateko.	% 15
Teknikoa	% 25

- Kasu horietan, testuaren zailtasuna ikusi ondoren, itzulpena egin aurretik aplikatu beharreko igoera adostuko da bezeroarekin.
- Tarifaren igoera testu-tratamendua behar duten dokumentu berezietan:

Se considerarán gastos subvencionables aquellos que respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, y que se relacionan a continuación:

- 1. Recursos humanos:** la persona que realiza las labores técnicas del proyecto es profesora del Euskaltegi y dedica el 28% de la jornada a tareas del Bai Euskarari.
- Gastos de labores de asesoría laboral.

- 2. Gastos de comunicación:** que incluyen el teléfono y material de oficina.

- 3. Ayudas a entidades integrantes en el proyecto:**

3.1. Certificados Bai euskarari: los agentes con certificado reciben el 50 % del importe correspondiente al coste de la base del certificado.

3.2. Aprendizaje de euskera de algún miembro de la entidad que tenga tareas dirigidas a la población de Barañáin: el 50 % de la matrícula abonada.

- 4. Traducciones de textos:**

Los agentes sociales podrán solicitar traducciones de textos, de castellano a euskera, que recibirán gratuitamente.

El gasto de dichas traducciones se computa con la siguiente tarifación:

- Tarifa base: 0,0128 euros /carácter (incluido espacio).
- Tarifa mínima: 23,04 euros (Se considerará traducción mínima la equivalente a una página aun siendo ésta de menor tamaño. En una página se calcula una media de 1.800 caracteres.).
- Incremento de la tarifa base según dificultad del texto:

Especial	
Revisión textos para VºBº	15 %
Técnica	25 %

- En estos casos y una vez observada la dificultad del texto se acordará con el cliente el incremento a aplicar antes de hacer la traducción.
- Incremento de la tarifa en documentos especiales que requieran tratamiento de texto:



- Testu-fitxategia diagrama, taula edo irudiekin % 10
- HTML, PDF, Power Point, kalkulu-orriak, datu-baseak, quark, PageMaker % 25
- Tarifaren igoera, entregatzeko epearen arabera (premiazko lantzat hartuko da itzulpena hurrengo 48 orduetan eskatzen duen oro edo eguneko 2.500 hitz baino gehiago, hau da, 15.000 karaktere baino gehiago, gainditzeko dituen): % 40
- Tarifa guztiei BEZari dagokion % 21 gehitu behar zaie.

5. Ziurtagiriak emateko ekitaldi publikoak: ekitaldi ofizialari dagozkion gastuak.

BOSGARRENA.- Hitzarmenaren indarraldia.

Hitzarmen honen indarraldia sinadura egunean hasiko da eta 2025eko abenduaren 31n amaitu.

SEIGARRENA.- Hitzarmena eta alderdietako konpromisoak betetzearen jarraipen, zaintza eta kontrol mekanismoak.

Jarraipen Batzorde bat eratuko da hitzarmen honetatik eratorritako jarduerak egoki gauzatzearen jarraipena eta kontrola egiteko.

Hitzarmenaren ondorioetarako, gutxienez, behin bilduko da Jarraipen Batzordea, eta Barañaingo Udalak izendatutako bi ordezkari eta Sahats Fundazioaren bi ordezkari osatuko dute Batzordea.

Batzordean hartzen diren erabakiak lotesleak izango dira alde bientzat.

Batzordeak izango dituen funtzioak dira:

- a) Hitzarmen hau gauatzeko eginen diren jardueren jarraipena.
- b) Hitzarmen hau interpretatzeko edo gauatzeko sor litezkeen desadostasunak edo gertakariak interpretatzea eta ebaztea.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko tituluko II.

- Archivo de texto con diagramas, tablas o imágenes 10 %
- HTML, PDF, Power Point, hojas de cálculo, bases de datos, quark, PageMaker 25 %
- Incremento de la tarifa según el plazo de entrega (se considera trabajo urgente todo aquel que requiera la traducción dentro de las 48 horas siguientes o sobrepase la media de 2.500 palabras por día, es decir, 15.000 caracteres): 40 %
- A todas las tarifas hay que sumarles el 21 % correspondiente al IVA.

5. Actos públicos de entrega de Certificados: Los gastos que correspondan al acto oficial.

QUINTA.- Duración del Convenio.

La duración del presente Convenio se extenderá desde su firma hasta el 31 de diciembre de 2025.

SEXTA.- Mecanismos de seguimiento, vigilancia y control de la ejecución del Convenio y de los compromisos de las partes.

Se establece una Comisión de Seguimiento para el seguimiento y control de la adecuada ejecución de las actividades que se derivan del presente convenio.

La Comisión de Seguimiento, deberá reunirse al menos una vez durante la producción de efectos del Convenio, y estará integrada por dos representantes nombrados por el Ayuntamiento de Barañain y dos representantes de Sahats Fundazioa.

Los acuerdos adoptados en el seno de la Comisión serán vinculantes para las partes.

Las funciones de la Comisión serán las siguientes:

- a) Seguimiento de las actividades realizadas en ejecución del presente Convenio.
- b) Interpretación y resolución de las discrepancias o incidencias que pudieran surgir en la interpretación o ejecución del presente Convenio.

El régimen de funcionamiento y toma de acuerdos de la Comisión de Seguimiento y Evaluación se ajustará a lo establecido en la Sección III del Capítulo II del

kapituluko III. atalean ezarritakoarekin bat bideratuko dira Jarraipen eta Ebaluazio Batzordearen funtzionamendua eta erabakiak hartzea.

ZAZPIGARRENA.- Ez betetzearen ondorioak.

Eskuratutako kopuruak itzuli beharko ditu Sahats Fundazioak, dagozkion berandutze-interesekin, hitzarmena ez badu betetzen.

Diruz lagundutako entitateak lortutako betetze-maila nahiko hurbil badago erabateko betetze-mailatik, eta ez bairik gabe erakusten badu bere konpromisoak betetzen ahalegindu dela, proportzionaltasun irizpidea erabiliko da itzuli behar duen zenbatekoa zehazteko.

Dirulaguntza gaietan, entitate onuradunak egin ditzakeen arau-hausteetarako, horiek graduatzeko eta zehatzeko, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren IV. Tituluko I. eta II. Kapituluetan xedatutakoari jarraituko zaio.

ZORTZIGARRENA.- Hitzarmena aldatzea.

Hitzarmenaren edukia soilik aldatu daiteke hala erabakitzen badute aho batez sinatzaileek.

BEDERATZIGARRENA.- Hitzarmena azkentzea.

Hitzarmena honako kasuetan azkenduko da: laugarren estipulazioan aurreikusitako epemugagatik, gainerako betebeharrak alde bietako edozeinek ez bete izanagatik –salaketa idatziz bideratuta, gutxienez, hilabete lehenago-, edo, alderdietako edonork erabakita, Hitzarmena betetzeko oztopoak daudela oinarrituko duten arrazoiak emanda.

Barañaingo Udalak hitzarmen hau suntsitu dezake hirugarren estipulazioan jasotako betebeharrak ez bete izanagatik Sahats Fundazioak, eta, honek, eskuratutako kopurua osorik edo hein batean itzuli beharko du, kontuan hartuta ez betetze maila eta azaldutako gainerako inguruabarrak.

Título Preliminar de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

SÉPTIMA.- Consecuencias del incumplimiento.

En caso de incumplimiento del convenio por parte de Sahats Fundazioa, procederá el reintegro de las cantidades percibidas, así como la exigencia del interés de demora correspondiente.

Cuando el cumplimiento por la entidad subvencionada se aproxime de modo significativo al cumplimiento total y se acredite por éste una actuación inequívocamente tendente a la satisfacción de sus compromisos, la cantidad a reintegrar deberá responder al principio de proporcionalidad.

Las posibles infracciones en materia de subvenciones que pudieran ser cometidas por la entidad subvencionada se graduarán y sancionarán de acuerdo con lo establecido en el Título IV, Capítulos I y II de la citada Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

OCTAVA.- Modificación del convenio.

La modificación del contenido del convenio solo podrá producirse por acuerdo unánime de los firmantes.

NOVENA.- Extinción del Convenio.

El convenio se extinguirá por vencimiento del plazo previsto en la estipulación cuarta, por incumplimiento del resto de las obligaciones asumidas por cualquiera de las partes previa denuncia realizada por escrito con una antelación mínima de un mes, o por decisión de cualquiera de las partes fundamentada en la existencia de causas que obstaculizan el cumplimiento del Convenio.

El Ayuntamiento de Barañáin podrá resolver el presente Convenio por incumplimiento de las obligaciones contenidas en la estipulación tercera, estando en ese caso Sahats Fundazioa obligada al reintegro total o parcial de la cantidad percibida, atendiendo al grado de incumplimiento y demás circunstancias concurrentes.



HAMARGARRENA.- Hitzarmenaren izaera.

Elkarlanerako hitzarmen honek administrazio izaera du eta bertan jasotako estipulazioei jarraituko die, eta agiriak biltzen ez duenari dagokionez ondoko arauetara jarraituko die: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legea; Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea; Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legea; Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra (38/2003 Legea, azaroaren 17koa).

Beraz, Hitzarmen honen indarraldian sortzen diren auziak administrazioarekiko auzien gaineko jurisdikzioak ebartziko ditu.

Eta, adostasuna erakustearren eta hitzartutakoa betetzearren, Hitzarmenaren bina ale sinatzen dugu, goiko egunean.

Stua: SAHATS FUNDAZIOAren zuzendaria.
Fdo.: Director de SAHATS FUNDAZIOA.

Jose Ramon Olano Etxabe

DÉCIMA.- Naturaleza del Convenio.

El presente Convenio de Colaboración tiene carácter administrativo y se regirá por las estipulaciones recogidas en este documento y en lo no previsto en él, por lo establecido en la siguiente normativa; Ley Foral de la Administración Local de Navarra; Ley Foral de Haciendas Locales de Navarra; Ley Foral de la Hacienda Pública de Navarra; Ley General de subvenciones (Ley 38/2003, de 17 de noviembre).

En consecuencia las cuestiones litigiosas que se produzcan durante la vigencia del presente Convenio serán dirimidas por la jurisdicción contencioso-administrativa.

Y en prueba de conformidad y para el fiel cumplimiento de lo convenido se suscribe el presente Convenio por duplicado ejemplar en el día de la fecha.

Stua.: Alkatea / Fdo.: La Alcaldesa.

María Lecumberri Bonilla



1. ERANSKINA

BAI EUSKARARI PROIEKTUA BARAÑAINEN

Aurrekontua 2025. urterako:

- 1. Giza baliabideak..... 10.272 €**
 (Nominak, Gizarte Asegurantzak, PFEZ)
 Aholkularitza-lanak..... 216 €
- 2. Komunikazio gastuak..... 501,63 €**
 (Telefona, bulegoko materiala)
- 3. Dirulaguntzak:**
 - Ziurtagiriagiritidunei 1.820 €
 (40 ziurtagiritidun x 45,50 €)
 - Euskara ikasteko..... 677,50 €
 (3 ikasle)
- 4. Itzulpenak..... 1.300 €**
 (Diru kopurua zehazterik ez dago, eskabideen arabera)
- 5. Bai Euskarari Ziurtagirien banatze ekitaldia..... 212,87 €**
- 6. Lanerako ekipoa berritu: ordenagailua erosi..... 1.000 €**

Aurrekontua, guztira:..... 16.000 €

ANEXO 1

PROYECTO BAI EUSKARARI EN BARAÑÁIN

Presupuesto para el año 2025:

- 1. Recursos humanos..... 10.272 €**
 (Nóminas, Seguridad Social, I.R.P.F.)
 Asesoría laboral..... 216 €
- 2. Gastos de comunicación..... 501,63 €**
 (Teléfono, material de oficina)
- 3. Ayudas para:**
 - Certificado a los agentes sociales..... 1.820 €
 - Aprendizaje de euskera.... 677,50 €
 (3 alumnos/as)
- 4. Traducciones 1.300 €**
 (No se puede delimitar la cantidad de ayudas porque está sujeta a las solicitudes)
- 5. Acto de entrega de Certificados Bai Euskarari..... 212,87 €**
- 6. Renovación del equipo de trabajo: adquisición de un ordenador..... 1.000 €**

Presupuesto total: 16.000 €



2. ERANSKINA

SAHATS FUNDAZIOAK ONDORENGO EKINTZAK BURUTUKO DITUELA HITZ EMATEN DU:

1. Barañaingo gizarte eragile, norbanakoak eta bestelako entitateak gonbidatuko ditugu ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz ere egitera, euskararen erabilera sustatzeko.
2. Gizarte eragileek harturiko konpromisoak garatzeko eta betetzeko behar duten laguntza ematea, eta konpromiso horien betetze maila aztertzea.
3. Prozesu honen berri ematea Barañaingo herritar guztiei, Berripapera argitalpenaren bidez, edo bideo bat eginez.
4. Bai Euskarari prozesuan parte hartzen ari diren gizarte eragileei Bai Euskarari Ziurtagiria eskaintzen jarraitzea.
5. Gizarte eragile gehiago BEra (Bai Euskarari) biltzen saiatzea.
6. Administrazioan Udalaren 2026ko Plantilla Organikoaren gaineko aholkularitza ematea, baita zerbitzuen kontrataziorako prestatzen dituen baldintza pleguetarako ere.

ANEXO 2

SAHATS FUNDAZIOA SE COMPROMETE A REALIZAR LAS SIGUIENTES ACTUACIONES:

1. En primer lugar, queremos invitar a los agentes sociales, a la ciudadanía y demás entidades a solicitar tanto la información escrita como hablada también en euskara; y así fomentar el uso del euskera.
2. Ofrecer la ayuda necesaria a los agentes sociales para que desarrollen y cumplan los compromisos que adquieran, y analizar el nivel de cumplimiento de dichos compromisos.
3. Informar sobre este proceso a la ciudadanía de Barañáin, a través de la publicación de Berripapera o la elaboración de un vídeo
4. Continuar ofreciendo el Certificado Bai Euskarari a los agentes sociales participantes en el el proceso.
5. Intentar conseguir la adhesión de más agentes sociales al proyecto Bai Euskarari.
6. En el ámbito de la Administración, asesorar al Ayuntamiento en la Plantilla Órgánica para 2026, así como en los pliegos de condiciones que elabora para la contratación de servicios.

3. ERANSKINA

ANEXO 3

EGINDAKO JARDUERAREN GASTUEN ETA INBERTSIOEN ZERRENDA SAILKATUA (*)				RELACIÓN CLASIFICADA DE GASTOS E INVERSIONES DE LA ACTIVIDAD REALIZADA (*)			
HORNITZAILEA / PROVEEDOR	HORNITZAILEAREN IFK / CIF PROVEEDOR	AGIRI ZK. / Nº DOCUMENTO	AGIRI DATA / FECHA DOCUMENTO	ORDAINKETA DATA / FECHA PAGO	KONTZEPTUAK / CONCEPTOS	GASTUAK / GASTOS	DIRU- SARRERAK / INGRESOS
BEHAR ADINA ERANSKIN SARTU / INCLUIR TANTOS ANEXOS COMO SEAN NECESARIOS						GUZTIRA / TOTAL	
						0,00 €	0,00 €